

#EGK2017 Twitter lehiaketa

Oinarriak

- 1- **HELBURUA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluari (EGK) ideiak eta proposamenak ematea **2017an lantzeko** eta lantalde teknikoaren plangintzan txertatzeko. Ahal den heinean egun EGK-k dituen [lan-arloekin](#) zerikusia izan behar dute proposamenek.

- 2- **BALDINTZAK:** Lehiaketan parte hartzeko **18 eta 30 urte arteko gaztea** izan behar duzu (ezingo da erakunde edo eragile baten izenean parte-hartu) eta **EAEkoa izan edo bertan bizi**. Horretaz gain, txioak honako ezaugarriak bete beharko ditu lehiaketan kontuak izateko:
 - a. Txioak **#EGK2017** traola izan behar du.
 - b. Parte hartzaileak **@GazteKontseilua** Twitter kontuaren jarraitzailea izan behar du.
 - c. Txioak aipamena egin behar dio **@GazteKontseilua** Twitter kontuari.
 - d. Txioa jartzen duen pertsonak, **horrelako galderei erantzun behar die:**
 - i. Zer ideia edo proposamen eman nahi diozu EGKri 2017rako?
 - ii. Zer gai edo ekimen landu beharko genuke 2017an?
 - iii. Zer mezu gustatuko litzaizuke EGKtik entzutea hurrengo urtean?
 - iv. Zer eskatu edo aldarrikatu beharko genuke erakundeekin biltzen garenean?
 - v. Zein dira egun gazteon arazo edo beharrak? Nola konpon genitzake?
 - e. Tuita euskaraz zein gazteleraz (ala bietan) izan daiteke.

- 3- **SARIAK**
 - 1go saria:** Bi sarrera 2017ko BBK Live-rako, hiru eguneko bonoa eta EGK-ko materialen sorta bat.
 - 2. saria:** Euskal Selektzioaren partidarako bi sarrera eta EGK-ko materialen sorta bat.
 - 3. saria:** 50 euro txartela bidezko merkataritzan gastatzeko eta EGK-ko materialen sorta bat.

- 4- **EPEA:** Zozketa **abenduaren 1etik 18ra arte** (egun hau barne) **bidalitako txioen artean** egingo da.

- 5- **ERABAKIA:** Saria emateko, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) zozketa egingo du lehiaketaren parte-hartzaile guztien artean, beti ere 2 ataleko baldintzak betetzen badituzte. Txio bakarra ala txio bat baino gehiago jarri,

pertsona bakoitzak zenbaki bakarra izango du zozketan. Hau da, saria irabazteko aukera bera dago txio bat ala txio bat baino gehiago bidalita.

- 6- **ZOZKETA:** Abenduaren 19an (astelehena) eguerdiko 11.30ean egingo da, Donostiako EGK-ko egoitzan ([Andia kalea, 11](#)) modu publikoan, hau da, edonor bertara daiteke zozketa ikustera. Hiru irabazle egongo dira eta hiru ordezeko.
- 7- **JAKINARAZPENAK:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) abenduaren 21an bertan jakinaraziko ditu saridunak. Batetik, Twitter sare sozialean mezu publiko bitartez, eta, bestetik, saritu bakoitzari mezu pribatu bitartez. Sarituek abenduaren 21ko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria zozketan ordezeko gisa geratu diren pertsoneri egokituko zaie. Ordezkoek abenduaren 23ko eguerdia (12:00) baino lehen erantzuten ez badute, saria eman gabe geratuko da.
- 8- **SARIA EMATEKO:** Saria jasotzeko, sarituak gertuen duen Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko (EGK) egoitzara joan beharko du ([Bilbo](#), [Vitoria-Gasteiz](#) edo [Donostian](#)), bertako langileekin adostutako ordu batean. NANA eskuan eraman beharko dute eta, Twitterreko izena izengoiti bat bada, kontua haiena dela frogatu beharko dute. Bestalde, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) argazkia egingo die sare sozialetan sariaren berri emateko.
- 9- **ONESPENA:** Zozketa honetan parte hartzeak lehiaketaren eta zozketaren oinarriekin bat egitea suposatzen du.
- 10- **ARDURA:** Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) jasotako tuiten edukiaren gaineko edozein ardura ukatzen du, baita parte-hartzaileen jokabidearen gaineko ardura oro ere.

twitter.com/GazteKontseilua